



Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak, 2016ko otsailaren 16an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

2.- Patronatuaren irudi korporatiboaren aldaketa onartzea.

Gaiaren azalpena

2016ko urtarrilaren 26ko Zuzendaritza Batzordean lehendakariak proposatu zuen Patronatuari, udalaren zerbitzua izanik, udalaren irudia edo logoa jartzea; eta izenari dagokionez, "Zerbitzu Sozialak" jartzea, denok ulertzeko erraza delako eta hizkera ez-sexista zaintzen delako.

Andoni Amonarraizek lehendakariak proposatutako logoan aldaketa bat egiteko proposamena aurkeztu zuen: logoaren barruan leiho bat sartzea (fondo gorria eta marko berdea). Leihoaren esanahia hauxe litzateke: "Abrimos el Ayuntamiento y el Patronato para cubrir las necesidades reales de todas/os los hernaniarras más necesitadas/os y para que entre por ella el espíritu de la reconciliación y la convivencia entre las personas de diferentes sensibilidades".

Lehendakariak esan du Amonarraizek proposatu duen logoaren aldaketak suposatuko lukeela udaleko logoa aldatzea.

Lehendakariak proposatu du:

- 1.- Udalak duen logoaren berdina izatea Patronatuak.
- 2.- Patronatuaren izen ofiziala "Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak" izatea.

Erabakia aho batez:

- 1.- Udalak duen logoaren berdina izatea Patronatuak.
- 2.- Patronatuaren izen ofiziala "Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak" izatea.
- 3.- Proposamen hau Hernaniko Udalaren Osoko Bilkurara bidaltzea, bere behin betiko onespenerako.

Y-Tato R. Sotelo

Horixe helarazten dizut, jakinaren gainean egoteko eta ondorioak izateko.

Hernanin, 2016ko otsailaren 19an
Idazkariordea



AA16030

GAIA: Hernaniko osasun eta gizarte ongintzarako udal patronatuaren izen eta logo aldaketa.

2016ko otsailaren 16an egindako ohiko bilkuran Zuzendaritza Batzordeak aho batez erabaki zuen Udalak duen logoaren berdina izatea Patronatuak, eta honen izen ofiziala aldatzea eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak izatea.

Hernaniko osasun eta gizarte ongintzarako udal patronatuaren izena Patronatu honen Estatutoetan ezarri zitzaion. Indarrean dauden Estatutuen 11. artikuluan Zuzendaritza Batzordeari honako atribuzio hau ematen zaio:

14) Estatutu hauen aldaketa Udalaren onarpenera jartzea.

Estatutu hauen 44. artikulua berriz hau dio:

Estatutu hauen berritzapenek beharrezko dute beren onarpenerako jarraitu bideari egokitzea.

Estatutu hauen izaera juridikoa arau orokorra izanik, Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/195 Legeak 49. artikuluan agintzen duen moduan jendeaurrean izan beharko da hogeita hamar egunez:

Artículo 49

La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al siguiente procedimiento:

a) Aprobación inicial por el Pleno.

b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.


En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

Izapide hau egin eta gero, legeak 70.2. artikuluan agintzen duena bete beharko da:

2. Los acuerdos que adopten las corporaciones locales se publican o notifican en la forma prevista por la Ley. Las ordenanzas, incluidos el articulado de las normas de los planes urbanísticos, así como los acuerdos correspondientes a éstos cuya aprobación definitiva sea competencia de los entes locales, se publicarán en el "Boletín Oficial" de la provincia y no entrarán en vigor hasta que se haya publicado completamente su texto y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 salvo...

Horretarako, gaur egun indarrean dauden Estatutuen testu bateratu bat prestatu beharko zen, Patronatua izena ezabatuz eta proposatzen den berria txertatuz.

Hernani, 2016ko martxoak 29



Sn Idazkariordea
Arantza Arrazola